

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

EUSKADIKO GOBERNU IREKIAREN ARLOKO INDARGUNE ETA ERRONKEN GAINEKO KONTAKIZUN PARTEKATUA

Xedea: guztion artean kontakizun bat osatzea 2018-2020 Ekintza Planean sartu beharreko konpromisoak zehazteko, bi analisi ardatz hartuta:

- Eurretan bermatzeko eta aurrera egiteko bideragarri gertatzen diren indarguneak
- Lankidetzaren eta erakundearteko bultzadaren bidez ekin geniezaiekeen erronkak

Kontakizun hori guztion artean osatzeak aukera emango digu hobeto jakiteko erakunde bakoitza zer egiten ari den, zeintzuk diren haren interesak, batera gauza daitezkeen proiektuak, partekatu eta toki-erakunde txikiagoei eskaini lekizkiekeen tresnak, eta hori guztia nola ezkontzen den herritarren interesekin eta askotariko sentikortasunekin.

EUSKO JAURLARITZAK, HIRU FORU-ALDUNDIEK ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO HIRIBURUETAKO HIRU UDALEK GAUZATU EDO PLANIFIKATU DITUZTEN EKIMENEN ATARIKO AZTERKETA

Erakundeen ekimenak, oro har, ardatzetan multzokatu dira euren tipologiaren arabera: arau-garapena, planak, tresnak, antolaketa-eredua eta organoak, teknologia, lankidetzaren sare publiko-pribatuak... Horren guztiaren helburua da indarguneak eta balizko lankidetzaren ildoak identifikatzeko eta ondorioak adostasunez ateratzen joateko bateratze-lana antolatzea. Jarraian funtsezko ideia batzuk aurkeztuko dira, erakundearteko bileretan sortuak, OGP hautagaitza prestatu aurretik, honako ardatz hauen inguruan:

1. Gardentasuna
2. Open data
3. Kontu-ematea (politika publikoen ebaluazioa barne)
4. Herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren
5. Integritatea
6. Kultura digitala
7. Kudeaketa publiko aurreratua
8. Herritarrentzako arreta-zerbitzuak

1.- GARDENTASUNA

GARDENTASUN-ATARIAK

Indargunea – Posizionamendua

Gardentasun-atariak finkatuta daude Euskadin, eta Nazioarteko Gardentasuna bezalako erakunde erreferenteek ebaluatu dituztenean, emaitza ezin hobekak izan dituzte:

- Eusko Legebiltzarrak 100etik 90,6 puntu eskuratu zituen 2016an (parlamentuen indizea)
- 2012an, 2014an eta 2016an Eusko Jaurlaritza lehen postuan egon da, 100 puntutik 100 puntu lortuta 2014an eta 2016an, eta azken urte horretan lehenengo postua eskuratu zuen lehen aldiz egin zen ebaluazio kualitatiboan ere (autonomia-erkidegoen indizean).
- - 2015ean ebaluatuta, hiru aldundiek 100etik 81 puntutik gora izan zituzten (Bizkaian 100, Araban 83 eta Gipuzkoan 81) (aldundien indizea)
- 2017an EAEn ebaluatu ziren udal guztiek 100etik 95 puntutik gora eskuratu zituzten (100 puntu Bilbon, Barakaldon eta Gasteizen eta 95,6 puntu Donostian) (udalen gardentasun-indizea)
- Uraren Euskal Agentziak (URA) 2015ean lehen postua lortu zuen ura kudeatzen duten organoen ebaluazio zorrotzean, 100etik 94,9 puntu eskuratuta (uraren gardentasun-indizea)

Erronkak

Aurrera egitea arlo hauek garatzeko: irisgarritasuna, informazioaren ulerterratasuna, formatu ireki eta berrerabilgarriak, eta informazioaren eguneratzea.

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

Lidergoa lortzea Nazioarteko Gardentasunak etorkizunean ezartzen dituen ebaluazio kualitatiboetan, 2016an autonomia-erkidegoen indizearekin lortu dugun moduan.

GARDENTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Indargunea - Posizionamendua.

EAEko erakundeek eta bertako administrazio instituzionalak oinarrizko araudia betetzen dute, oro har, eta publizitate aktiboaren arloan araudiaz gaindiko konpromisoak hartzeko joera dute, informazioa eskuratzeko eskaerei epe laburragoan erantzun ohi diete, eta gardentasunaren arloko betebeharren jarraipen eta kontrolerako organoak sortzen dituzte.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek badute euren araudia ([1/2017 Foru Araua](#), otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena; [1/2016 Foru Araua](#), [otsailaren 17koa](#) ([otsailaren 24ko BAO](#), [37. zk.](#)), [Bizkaiko gardentasunari buruzkoa](#); [4/2014 Foru Araua](#), otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa).

Toki-erakundeek gardentasunari buruzko autonomia-erkidegoko araudi propioa dute, oso aurreratua: [Euskadiko](#) Toki Erakundeei buruzko Legea; eta zenbait udalek badute euren araudia (Alkatetzaren 2015eko azaroaren 19ko Dekretua, Gasteizko Udalean gardentasunaren kultura bultzatzekoa...)

Erronkak

Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun ez du erregulazio propiorik, eta oinarrizko araudia berrikuspen- eta erreforma-prozesuan dago. Bestalde, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta salatzailleak babesteko araudiak dagoeneko Kongresuko zuzenketen fasea bukatu du, eta Kontratu Publikoen Lege berria indarrean jarri da.

Eusko Legebiltzarrak gardentasunari buruzko EAEko lege zorrotz bat onartu behar luke, autonomia-erkidegoko araudia homogeneizatuko duena, gardentasuna sustatu eta kontrolatzeko organoei eta bermeei dagokienez. Gaur egun zuzenketen fasean dago gardentasunari,

herritarren parte-hartzeari eta gobernamentu onari buruzko lege-proposamen bat, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde parlamentarioek aurkeztua.

Beste alde batetik, erakunde publikoen bultzadaren beharra dago, diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten edo zerbitzu publikoetan jarduten duten erakunde pribatuek dagokien gardentasun-araudia bete dezaten, ez baitzaio eman merezi lukeen zabalkundea. Ildo horretan, autoebaluaziorako tresna komun bat erabiliko balitz betetze-maila kuantitatiboa (argitaratzen ote den) eta kualitatiboa (informazio eguneratua, ulerterraza, irisgarria eta osoa argitaratzen ote den) neurtzeko, oinarrizko araudiak, autonomia-erkidegokoak, foru-araudiak edo toki-araudiak ezartzen dituzten publizitate aktiboko betekizunak betez, bada, horrek balioko luke erakunde publiko edo pribatuen gardentasun-arloko betebeharren betetze kuantitatiboaz eta kualitatiboaz informatzeko eta hura bultzatu eta sustatzeko, alde batera utzita EAEko administrazioen edo haietakoren baten sozietate-partaidetza gehiengoduna edo gutxiengoduna edota tutoretza eraginkorra (MESTA gisako tresna, Estatuko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak prestatua, autonomia-erkidegoekin eta AEVAL- Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Espainiako Agentziarekin batera).

GARDENTASUN-ORGANOAK

Indargunea - Posizionamendua

Administrazio guztiek ezarri dituzte euren antolamenduan zenbait egitura (esaterako, gardentasuneko, gobernu irekiko edo berrikuntza publikoko zuzendaritza berriak), zenbait lanpostu eta koordinazio-organo, kudeaketa publikoaren kultura eraldatzen laguntzen dutenak, kudeaketa gardena bihurtzeko, herritarrei administrazioen erabakien eta jarduketan gaineko informazioa emateko konprometitua. Guztiek aitortzen dute kultura eta kudeaketa gardena sustatu ahal izateko beharrezkoa dela antolaketaren ikuspegi deszentralizatua eta zeharkakoa, erakunde osoari eragiten diona, eta balio hori erantsi behar zaiela edozein mailatako lanpostu eta langile guztiei (lehen lerroko arretatik hasi eta lanpostu tekniko, zuzendaritzako kide eta goi-kargudunetaraino). Barruan gertatzen dena kanpoan ikusi ahal izatea da kontua.

Jarraipen- eta kontrol-organoak ere sortu izan dira, baina agian behin-behinean, autonomia-erkidegoko araudiaren zain:

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea ([128/2016 Dekretua](#), abenduaren 13koa, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoa)
- Arabako Foru Aldundiaren Gardentasunaren Foru [Kontseilua](#)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Erreklamazioen Batzordea ([1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa \(otsailaren 24ko BAO, 37. zk.\), Bizkaiko gardentasunari buruzkoa](#))
- Gasteizko Udalaren Gardentasun [Kontseilua](#)
- Donostiako Udaleko Udal Informazio Unitatea

Erronkak

Erronka da, Euskadin, EAEko administrazio publiko guztietarako, administrazio instituzionalerako, erakunde instrumental, diruz lagundutako erakunde pribatu, enpresa kontratatu eta abarretarako, gardentasunaren sustapen-, jarraipen- eta kontrol-eginkizunak bilduko dituen organo komun eta independente bat izatea, zehatzeko eskumena ere izango duena.

GARDENTASUN-PLANAK

Indargunea – Posizionamendua

EAEko ia erakunde guztiek dute planifikazioaren bat gardentasuna bultzatzeko, edo hura egiteko prozesuan ari dira, berariaz zein esparru estrategiko zabalago batean:

- Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 [Plana](#)
- Arabako Aldundiaren 2015-2019 Legegintzaldiko [Plan](#) Estrategikoa
- Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru [Plana](#) 2017-2019
- [ETORKIZUNA ERAIKIZ](#): AGENDA ESTRATEGIKOA 2025, Gipuzkoako Aldundiarena
- Gasteizko Udalaren Gardentasun [Plan](#) Operatiboa, 2016ko ekainean egina, non kudeaketa-eredu berri bat proposatzen den: Gobernu Irekia, hiri garden eta parte-hartzailearen aldeko 2015-2019 Plan Estrategikoaren barruan kokatua
- Bilboko Udalaren Gardentasun Plan Estrategikoa

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

- Donostiako Udalaren Gardentasun Plan Estrategikoa

Horrek guztiak jardun egituratua dakar, konprometituagoa, esleitu beharreko bitarteko eta baliabideei, emaitzak eta eraginak ebaluatzeko aukerari eta hobekuntzarako proposamenei dagokienez.

Erronkak

Hona erronka: batera egin litezkeen ekintzak koordinatzea eta garapen, tresna, nahiz baliabideen inguruko aurrerapenak partekatzea EAEko erakundeen artean.

GARDENTASUNERAKO TRESNAK ETA AZPIEGITURAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko erakundeek makina bat tresna garatu dituzte gardentasun-adierazleak argitaratzeko: antolaketaren eta plangintzaren gaineko informazioa, araudia eta garrantzi juridikoko informazioa, hitzarmen, kudeaketa-gomendio, kontratu edo diru-laguntzak bezalako administrazio-egintzen gainekoa, ekonomikoa, ondasun higieziei buruzkoa, zerbitzu-gutunei buruzkoa...

Badira gardentasunaren gidak, eta horien artean nabarmentzekoa da honako hau:

- Gardentasunean ontziratuko gara (eskifaiaren eskuliburua), Eusko Jaurlaritzarena

Erronkak

Erronka da tresnak partekatzea oraindik modu eraginkorrean garatu ez dituztenekin, eta EAEko administrazio guztiei interesatzen zaizkienak elkarrekin garatzea, hala nola bistaratze grafikoak, erakunde-agendak edo herritarren informazio-beharrizanei buruzko inkestak.

2.- OPEN DATA

OPEN DATA ATARIAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko erakunde gehienek badute open data ataria, edo horrelako bat instalatzeko moduan daude, eta datu irekien mordo handia dago:

- Open Data Euskadi atarian gaur egun datu irekien 4.126 multzo daude, horietatik 186 Open Data Bilbaorenak, 370 Open Data Gipuzkoarenak, eta 121 Open Data Gasteizenak. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiaren eta Bilboko eta Gasteizko udalen datuak federatuta daude.

Open Data Bilbaok HIRI ADIMENDUNEN ETA DATU IREKIEN (OPEN DATA) UNE178301 arauaren ziurtagiria dauka.

Datuak berrerabiltzearen kultura sustatzeko, Eusko Jaurlaritza datu irekiekiko ideien eta aplikazioen lehiaketak sustatzen ari da. Informazioaren bitartekariak eta berrerabiltzaileak eta unibertsitate-ikasleak aurkezten dira lehiaketa horietara.

Erronkak

Open Data Euskadiko datu-federazioa EAEko administrazio guztietara, txikienetara ere bai, hedatzeaz eta datu publikoak irekitzen jarraitzeaz gainera, honetan datza erronka:

- datuen etiketak normalizatzea (UNE arauak kudeaketa normalizatzen du, baina ez datuak kategorizatzeke era)
- datuekin zerbitzu publikoak sortzea eta linked data edo datu estekatuen bitartez lotzea; dagoeneko horien azpiegitura garatzen ari da Eusko Jaurlaritza

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

- eskaria aztertzea, herritarren, erakunde pribatuen, berrerabiltzaileen eta jarduera ekonomikoei ekiten dieten pertsonen ikuspegitik, halako moldez non datuak irekitzeko plangintzan ez baitzaie administrazioen ahalbideei bakarrik jarriko arreta, baizik eta herritarren eskariei eta negozioarako eta balio ekonomikorako aukerei ere bai
- Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek batera open data lehiaketan deialdiak egitea, datu irekiak berrerabiltzearen kultura sustatzeko

3.- KONTU-EMATEA

TRESNAK ETA AZPIEGITURAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko administrazio ia guztiek kontuak emateko tresnak dituzte, eta tresna horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- gobernu-plan edo -programen jarraipenerako aplikazioak: kasu batzuetan lehentasuna ematen zaio herritarrek haiek bistaratzeari, eta horrela balio dezakete legegintzaldi edo agintaldi bakoitzeko lehentasun politikoak eta erronka nagusiak ulertzeko, laburbilduta bada ere; beste batzuetan hautatu da guztiz xehakaturak aurkeztea helburuak, ekimenak, aurrekontuak, egutegiak eta exekuzioaren arduradunak, eta hori dena etengabe eguneratzea
 - Eusko Jaurlaritza <https://programa.irekia.euskadi.eus/eu/site/home>
 - Donostiako Udala <http://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/programagobierno.nsf>
<http://www.donostia.eus/ataria/web/gardentasuna/udalgobernua/gobernu-programa>
 - Bizkaiko Foru Aldundiak bere barne-kudeaketarako garatu du, eta argitalpen-fasean dago
 - Gipuzkoako Foru Aldundiak bere barne-kudeaketarako garatu du, eta helburuak noraino betetzen diren argitaratzen du. Laster ekingo diote mugarren mailako argitalpen osoagoaren faseari
- aurrekontuak: kasu honetan garatutako tresnek xedetzat dute modu erraz eta ulergarrian aurkeztea aurrekontu publikoen erabilera, gauzatze-mailak, herritarrek euren diru-sarreraren arabera aurrekontuetarako egiten duten ekarpena...

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

- Eusko Jaurlaritza <http://aurrekontuak.irekia.euskadi.eus/?locale=eu>
 - Donostiako Udala <http://www.donostia.eus/ataria/eu/web/aurrekontuak/inbertsio-nagusiak-2017>
- administrazio-egintzak: LEGEGUNEA webgune bat da, izapide elektronikoetarako TRAMITAGUNE plataformarekin lotua, eta beraren bitartez Eusko Jaurlaritzako edozein langile publikok, administrazio-prozeduraren parte gisa, argitaratu egiten ditu, gertatzen diren unean bertan, eta lotuta dauzkaten metadatuekin batera, nahitaezko edo borondatezko txostenak, memoriak, ebazpenak, arau-proiektuak, hitzarmenak, kudeaketa-gomendioak, jarduketa planak eta abarrekoak.
- Eusko Jaurlaritza [http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-formbusa/eu/contenidos/recurso tecnico/legesarea comun/eu búsqueda/index.html#documentacion](http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-formbusa/eu/contenidos/recurso_tecnico/legesarea_comun/eu_búsqueda/index.html#documentacion)
- zerbitzu-gutunak: ugarituz doaz zerbitzu-gutunak dituzten EAEko administrazioak, ematen dituzten zerbitzuen kalitate-ratioak hobetzeko konpromisoen adierazgarri; eta gutun horiek kudeaketa hobetzeko barne-dokumentuak izatetik kontuak emateko kanpo-dokumentuak izatera igaro dira
- politika publikoak ebaluatzeko sistemak: ebaluazio-eginkizunaren nahitaezkotasuna gero eta arautuago dago lege sektorialetan eta foru- zein toki-erakundeen gardentasunari eta gobernamentu onari buruzko arauetan. Gainera, behatokiak bezalako organo eta ekimenak gero eta gehiago erabiltzen dira ebaluaziorako: etxebizitzaren behatokia, gazteena, kulturarena, immigrazioarena, gizarte-ekonomiarena, jazarpenari eta diskriminazioari buruzkoa, segurtasunarena, Justizia Administrazioarena..., bai eta plangintza eta ebaluaziorako zuzendaritza berariazkoak ere. Ebaluazioa erakundetu ahal izateko, ordea, sistema integratuaren beharra dago erakunde osoarentzat, eta horrelako bat jarriko da abian GBPP 2020ren esparruan, “Plangintza estrategiko adimenduna eta ebaluazioa” ardatzean, Lehendakaritza eta Ekonomia sailetatik eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzatik, Eusko Jaurlaritzaren kasuan.

Erronkak

Erronkak zerikusia du kontuak emateko balio duen kudeaketa-informazio osoaren argitalpen deszentralizatua modu automatikoan eta jatorrizko datu-iturrietatik egitea ahalbidetzen duten sistemetan aurrera egitearekin; hartara, hartzen diren erabakiak ez ezik, erabakiak hartzeko prozesuak ere ezagutu ahal izango dira, euren esku-hartzaile eta baldintzatzaileekin, bai eta prozesuok zuzentzeko hartzen diren neurriak ere.

Politika publikoen ebaluazioari dagokionez, hona erronka: erakunde bakoitzak gainerako administrazioekin elkarrengaitzeko sistema integratu baten beharra dago ebaluazio-eginkizuna erakundetzeko, araudi espezifikoaren bitartez, zeinetan ezarriko baitira ebaluazio-betebeharrak (inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, emaitzen ebaluazioa eta politiken, arauen eta ematen diren zerbitzu publikoen ebaluazioak), koordinazio-organoak eta tresna elkarrengaitzekoak.

4.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA

ARAUAK-PLANAK-EREDUAK

Indargunea – Posizionamendua

Dela gardentasunari, parte hartzeari eta gobernamentu onari buruzko arau orokorren bitartez (esaterako, Arabako Foru Aldundiaren [1/2017 Foru Araua](#), gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena, edo toki-erakundeen kasuan 2016ko apirilaren 14ko [Legea](#), Euskadiko toki-erakundeei buruzkoa), dela parte-hartzeari buruzko berariazko arauen bitartez (Gipuzkoako Aldundiaren [uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua](#), [herritarren partaidetzari buruzkoa](#)) edo hiru hiriburuetakako udalen parte hartzezko erreforma-prozesuen bitartez (Bilbo: [Barrutien antolaketa eta hiritarren partaidetzarako arautegia \(zati batean eguneratua\)](#); Gasteiz: [Herritarrek Parte-hartzearen Araudia](#); Donostia: Hiritar Kontsulten [Erregelamendua](#)), Euskal Autonomia Erkidegoan herritarrek arazo publikoetan parte har dezaten bultzatzeko behararen aitortpenaren ibilbidea egin da araudi indardunaren bitartez, hainbestearino ezen araudi aitzindari horiek berrikusten ari baitira herritarrek parte hartzeko sentitzen eta aldarrikatzen dituzten premia handiagoei doitzeko.

Arautzea beti da bultzadaren iturri ona, baina herritarren parte-hartzearen erakundetzeak, bera bideratzeko neurririk ezean, atzeratu, zaildu eta moteldu egiten du aplikazioaren gaineko inpaktua.

Horregatik sortzen dira parte-hartzea bultzatzeko planak, dela plan orokorragoen esparruan (adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 [Plana](#), besteak beste), dela berariazko planetan (hala nola Gasteizko Udalarena, Bilboko Udalarena edo Gipuzkoako Aldundiarena), eta askoz berritzaileagoak diren ekimenak, herritarrekin batera sortzekoak.

Horietako bat dugu Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria. Hura egiten 500dik gora pertsonak eta 150etik gora erakundek parte hartu zuten, urtebete iraun zuen elkarlaneko sorkuntza-prozesuan (2014an), eta Euskadirentzako ereduaren printzipioak, gainditu beharreko aurreiritziak eta jarrerak, aurrera egiteko proposamenak eta hedatzeko konpromisoak biltzen ditu. Azken horiek betetzen joan dira 2015., 2016., 2017. eta 2018. urteetan; izan ere, haien zabalkundea egin da gizartean eta Eusko Legebiltzarrean bertan, araugintzako erregulazio-proposamen bat egin da, eta ereduzko proiektu pilotuak egin dira (adibidez, Berdintasunerako Legearen ebaluazio parte-hartezkoa, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen prestatze parte-hartezkoa, Biodibertsitateari eta ingurune naturalari buruzko zientzia hiritarraren garapena, Osasun-arloan parte hartzeko EAEko estrategia prestatzea, elkarlan-zuzenbidearen sustapena, Administrazioetako langileak boluntarioekin elkarlanean jarduteko trebatzea). Ekimen horrek, bere hedapenarekin batera, Eskualde Batuen Erakundearen eta NBGPren ORU FOGAR saria jaso zuen 2016. urtean, eskualde-jardunbide egoki gisa.

Beste horrenbeste esan daiteke ETORKIZUNA ERAIKIZ ekimenari buruz. Gipuzkoako lurraldearen etorkizuna elkarlaneko “governantza berri” ireki batean oinarrituta definitzeko sortutako ekimena da, guztien artean 2025eko Gipuzkoa eraikitzen joateko, lurralde lehiakor eta solidario gisa. Haren lehenengo zutabea Gipuzkoa Lab da, hots, Gipuzkoa Taldean izeneko gogoeta-esparruan identifikatutako proiektu estrategiko edo esperimentalak taxutzeko eta abian jartzeko gunea. Gipuzkoa Taldean bera da bigarren zutabea, erronkei buruzko gogoeta partekatzea eta hamar urteko epean abian jarri beharreko proiektu berriak identifikatzea helburu duena. Zeharkako hiru ekimenek elikatzen dituzte bi zutabe horiek: Nazioarteratze Sarea: esperientzia arrakastatsuen azterketari ekiteko eta nazioarteko foro eta sareetan sartzea sustatzeko baliatuko den nazioarteko sarea; Ikergune deritzona, Gipuzkoan kokatutako lau unibertsitateak biltzen dituen, foru erakundeak ezagutzaren sistemarekin duen lotura sendotzeko; eta, azkenik, Gizarteratze Prozesua, Gipuzkoako lurraldearen erronka nagusiak eta, halaber, Gipuzkoako gizartearekin batera lortutako emaitzak eta esperientziak eztabaidatzeko, hedatzeko eta gizarteratzeko.

Erronkak

Erakunde guztientzako oinarrizko araudirik ezean, eta toki-administrazioek arauketan ahalegina eginda —aitzindariak izan baitira, nahiz eta gaur egun haien araudiek berrikuspenaren beharra duten—, erronka bat azaleratzen da, alegia, EAEko lege bat egin beharra, gutxienez ere eskubideak homogeneizatuko dituen, betiere erakunde-maila bakoitzak bere burua antolatzeko duen ahalmena errespetatuz, eta toki-administrazio guztientzat erreferentziako toki-erregelamenduaren ereduak egin beharra; horretan ari da dagoeneko Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL), eta lan horrek balio handia ekarriko luke gobernantza-eredu egonkorak hedatzeko.

PARTE HARTZEKO ORGANOK

Indargunea – Posizionamendua

Erakunde guztiek dituzte aholku emateko eta parte hartzeko hainbat organo, orokorrak edo sektorialak, horietako asko lege-mailako arauen bidez sortuak. Batzuk guztiz finkatuta daude, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea edo Lan Harremanen Kontseilua, esaterako, eta beste batzuk nabarmendu beharrekoak dira oraintsu sortuak direlako eta elkarlaneko ikaskuntzarako eta gobernamendu onaren ildoan erabakiak hartzen laguntzeko gune benetan bihurtzeko aukerak dituztelako: Tokiko Politiken Euskal Kontseilua, hiru erakunde-mailek osatua, edo Udalen Kontseilua eta Gizarte Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua.

Organo formal horiez gain, EAEko erakundeek gero eta sarriago jotzen dute parte hartzeko gune informaletara euren politikak, arauak edo programa nahiz zerbitzu publikoak erkatu eta taxutzeko. Herritarren gogoetarako espazioen bila dabilta, esperimentatzeko eta arazo publikoetan erantzukide izateko.

Era berean, gero eta gehiago parte hartzen da eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren sareetan, EAE mailan. Esate baterako, Innobasque irabazteko asmorik gabeko erakundearen misioa da Euskadin berrikuntza sustatzea, berrikuntza soziala eta gobernantza-eredu

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

berriak barne; Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zibilak, hainbat enpresa eta administrazioak eta bizitza sozialeko, ekonomikoko eta kultureko pertsona bereziki adierazgarriek osatzen dute (1.000 bazkide baino gehiago ditu); Euskadin oso hedatua dago eta Euskadiren etorkizuna eraikitzekeko proiektu berritzaile eta esperimentalak bultzatzeko baliabide garrantzitsuak da.

EAEko administrazioek nazioarteko lankidetzaren sareetan ere parte hartzen dute euren politiken arlo guztietan. Horien artean honako hauek nabarmendu daitezke: Eskualde Batuen Erakundea (ORU/FOGAR), non Euskadik 2017an bigarren lehendakariordetza eduki baitu —Marokoko Rabat-Zalé-Zemour eskualdeko presidentea Abdessamad Sekkal lehendakari zela—; eta UCLG (United Cities and Local Governments) sarea, zeinean gaur egun Gipuzkoako Aldundiak parte hartzen baitu Nazio Batuen —Habitat— Global-Local Accountability Support System proiektuarekin; proiektu horrek toki-gobernuei hirigintzako garapenean ustelkeriaren aurkako prebentzioan eta borrokan laguntzen die.

Erronkak

Hala ere, aholku emateko eta parte hartzeko organo asko egon arren (40tik gora, Eusko Jaurlaritzaren kasuan), horrek ez du bermatzen arazo publikoen gobernantza eraginkorra, eta komeni da haien benetako jarduerak, osakerak, eginkizunak eta kudeaketa-eredua sakonean aztertzekeo denbora hartzea. Beraz, hau da arlo honetako erronka:

- Organo horien jarduna aztertu behar da euren arrazionalizazioari eta taxuera eraginkorragoari begira, eta indartu egin behar dira ikuspegi anitzetik lan egiten dutenak eta euren lankidetzaren bitartez kudeaketa publikoari benetan balioa gehitzen diotenak
- Lan ireki eta gardengoa egin ahal izateko eta elkarlana areagotu ahal izateko tresnak eman behar zaizkie
- Euskadin dauden organo guztiak mapatu behar dira, lurralde-maila guztietakoak barruan hartuz, herritarren aurreko gardentasuna eta irisgarritasuna helburu.

Beste alde batetik, gobernantza-sistema berriek organo formal horien egokitasunari eta onurari gehitzen diete beste sistema informalago batzuen bultzada. Esan genezake azken horiek parte hartzeko gune malgu baina egonkorak direla, eta halakoei ekin behar genieke.

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

Euskadi Gobernu Irekirako Aliantzan parte hartzeko hautagai izan da, hain zuzen ere, EAEko Jaurlaritzaren eta foru- zein toki-gobernuen konpromiso zehatzak bideratu nahi direlako gardentasuna sustatzeko, herritarrek arazo publikoetan gehiago parte hartzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta gobernantza sendotu dezaketen teknologia berriak baliatzeko.

PARTE HARTZEKO PROZESUAK

Indargunea – Posizionamendua

Azken urteotan administrazio instituzionaleko maila guztietan parte hartzeko hainbat eta hainbat prozesu izan dira Euskadin. Honako hauek, bereziki, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak definitzen dituen hiru dimentsioetan herritarrek parte hartzeko prozesuak sustatzea bideragarria eta ona dela erakusteko mugarriak dira, benetako eragina dutelako, ereduak direlako eta errepika daitezkeelako:

- Parte-hartze politikoa, politika publikoen diseinurako, plangintzarako, monitorizaziorako eta ebaluaziorako (zer egin eta zertarako). Hona adibide batzuk:
 - Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko [Liburu](#) Zuria egitea, herritarrek arazo publikoetan gehiago parte hartuko duten Euskadi hori eraikitzekeo abiapuntu gisa
 - EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen [Berrikuspena](#) egiteko prozesua
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) ebaluazio parte-hartezkoa.
 - EAEko toki-administrazioak garatzen ari diren aurrekontu parte-hartezkoak, legeak agindutakoak. Horiek inplikazio handiagoa dute hirigintzako eta azpiegituretako obretako jardueretan.
 - ...
- Zerbitzuen diseinurako parte-hartzea, eraginkortasunari arreta gehiago jartzen dion eta izaera operatiboa duen dimentsio batean, zerbitzu publikoen prestazioa hobetzeko. Horren adibidea da Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko duen programaren birdiseinua.

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

- Elkarlaneko parte-hartzea, alegia, gizarte zibiletik balio publikoa sortzeko azaltzen diren ekimenak eta, halaber, beste ekimen batzuk, arazo publikoak batera kudeatzeko erantzukidetzeta-inguruneak garatzen dituztenak. Hala gertatzen da, adibidez, honako hauekin:
 - o Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan sariak, EAeko gizarte zibilak sortutako balio publikoa aintzatesteko banatzen direnak. Sari horien deialdiak egin dira 2015ean, 2016an eta 2017an, eta 10 sari eman dira
 - o Elkarlan-zuzenbidearen sustapena. Gatazkak ebazteko aukerako metodoa da, berritzailea, elkarlanean jardutekoa, lagunartekoa; baina, batez ere, babes juridikoa eta justizia printzipio eta balio jakin batzuetatik abiatuta ulertzeko modu berria da, Euskadiko Elkarlan Zuzenbidea Garatzeko Elkartearantzako laguntzaren bitartez
 - o Biodibertsitateari eta ingurune naturalari buruzko zientzia hiritarra garatzea, Eusko Jaurlaritzak Bid Rex Interreg Europe sarean parte hartuta

...

Erronkak

Parte hartzeko prozesuak eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da administrazioek eta herritarrek zenbait jarrera eta aurreiritzi gainditzea, prozesuok kudeatzeko tresna eta azpiegitura egokiak erabiltzea, beste esparru edo lurralde batzuetara hedatzeko eredu izango diren saiakuntzak eta praktika onak egitea; eta, batez ere, administrazio publiko guztien agenda politikoan sartu behar dira prozesu horiek. Horregatik, ahalegina egiten jarraitu behar da gizartea sentikortzen, elkarlanerako trebetasunak lantzen, ereduak eta gida praktikokoak garatzen eta gobernantza onerako plataforma birtual eta topagune malgu eta egonkorrak taxutzen.

Parte-hartzeko aurrekontuak direla eta, adibidez, gogoeta egin behar da parte hartzeko benetako tresna gisa duten ahalmenari buruz; agian erabilgarri izan daitezke herritarrek sumatzen dituzten eskariak identifikatzeko edo baliabideen esleipenean lehentasunak ezartzeko... eraginkortasunez kudeatzen badira haien hedapena, proposamenak prestatzeko pizgarriak, eztabaida kolektiboa, balorazio-irizpide gardenak eta adostasunerako nahiz erabakiak hartzeko moduak.

PARTE HARTZEKO TRESNAK ETA PLATAFORMAK

Indargunea – Posizionamendua

Erakundeek hainbat plataforma eta tresna baliagarri garatu dituzte kudeaketa publikoan parte hartzearen kulturaren aurrera egiteko. Horien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

- PLATAFORMAK

- Parte hartzeko lineako plataforma (DonostiaKIN), elkarten ATARIA (ElkarteKIN), PH Gunea (elkarteentzako gune bat haien arteko harremanetarako).
- Herritarrek parte hartzeko Bilboko Udalaren ataria
- "Bilbo Hobetuz" izeneko herritarrek mugikorraren bidez eta denbora errealean parte hartzeko plataforma da. Gorabeherak, iradokizunak eta hobekuntzak jasotzen ditu hainbat gairen inguruan (ur-sareak, saneamendua, argiak, garbiketa eta hondakinen kudeaketa, eraztun berdea, parke eta lorategiak, hiri-tresneria, bideak, bizikletak eta espazio publikoa)
- Etxebizitza deritzo Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren plataforma berriari. Beraren helburua da herritarrekin, sektoreko profesionalekin eta etxebizitza-arloa interesatzen zaien hedabideekin komunikatzeko bide bat irekita edukitzea. Gainera, gune pribatu bat dute sektoreko profesionalentzat, eta bertan eduki espezializatua aurki dezakete.
- Irekia. Irekia zuzeneko komunikaziorako bide bat da, herritarren eta EAEko Administrazioaren artekoa: 1) Agenda: goi-kargudunen eta sailen jardueren agenda denbora errealean eguneratzen da; 2) Berriak: Jaurlaritzaren jardueraren berri; 3) Goi-kargudunen fitxak: aurrekontuaren magnitudeak, giza baliabideak zuzendaritzaka/arloka, eta abar; 4) Parte-hartzea: Jaurlaritzaren proposamenak eta herritarren eskaerak; 5) Topaketak: goi-kargudunetik topaketa digitalak, zuzenean transmititzen eta Jaurlaritzaren sare sozialetatik partekatzen direnak; 6) Gizarte-sareak: Jaurlaritzaren kontuen kudeaketa eta koordinazioa; 7) Entzute aktiboa: Irekia plataformaren barruko softwarea, Twitterren argitaratutako edukiak jasotzen dituen, gaikako gako-hitzen hautaketatik abiatuta.
- Herritarrek parte hartzeko Gasteizko Udalaren webgunea: Gasteiz Hobetuz, parte-hartzeko aurrekontuen programa; Herritarrek Parte Hartzeko Plana; [parte hartzeko prozesuak](#) Gasteizen; Herritartasunerako Eskola Irekiaren (HEI) web-orria; [VGarbi](#), parte hartzeko doako tresna, garbiketa publikoaren eta hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko gorabeherak WhatsApp eta Telegram bidez identifikatu eta kudeatzeko...

- TRESNAK

- Gipuzkoako Herritartasun Eskolaren proiektu pilotua, gipuzkoarren artean herritarren parte-hartzearen arloko ikaskuntza eta kultura sustatzea xede duena
- Herritarren parte-hartzearen Arabako Foru Aldundiko erregistroa
- Gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Foru Arauaren eta Arabako Aldundiko Gobernu Irekiko Atariaren gida erraza
- Laia Eskola - Arabako Emakumeon Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren sorrera
- Parte-hartzearen bidaia-gida (arakatzeko, hurbiltzeko eta ibilbidea egiteko 100 orientazio); Parte-hartzearen korapiloak (elkarlaneko gogoeta bat, 26 udalerritan izandako esperientziatik abiatuta, arduradun politiko eta teknikoei arazo horiek aurreikusten eta saihesten laguntzeko, korapilatu eta parte-hartze prozesua tratatu baino lehen; Administrazio publikoetako parte-hartze prozesuak ebaluatzeko ereduak; Osasun-arloan parte hartzeko gida; Gobernu Irekiari buruzko lineako ikastaroa

Erronkak

Parte hartzeko plataformak eta parte-hartze prozesuak hobeto kudeatzeko tresnak hedatu eta orokortu egin behar dira, herritarrek, oro har, eta politikaren esparru bakoitzean espezializatutako teknikariek, bereziki, sarriago erabil ditzaten eta ohiko eta berezko zeregin bihur daitezen eguneroko kudeaketa publikoan. Horregatik, ahalegina egiten jarraitu behar da gizartea sentikortzen, elkarlanerako trebetasunak lantzen, ereduak eta gida praktikoak garatzen eta gobernantza onerako plataforma birtual eta topagune malgu eta egonkorak taxutzen.

5.- INTEGRITATEA

ARAUAK-EREDUAK

Indargunea – Posizionamendua

Duela urte batzuetatik hona EAEko erakundeek antzeko mekanismoak eta tresnak erabiltzen dituzte euren erakunde-integritaterako sisteman.

Ekainaren 26ko 1/2014 [Legeak](#) (kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituena) kargu publikodunaren kontzeptua bera zabaltzen du, bertan arautzen den kontrol- eta berme-sisteman Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zeregin publikoak betetzen dituzten ahalik eta kargudun gehienak sartzeko eta interes orokorraren lehentasuna ziurtatzen duten printzipioak, betebeharrak, bermeak prozedurak eta zehapenak arautzeko. Hainbat erakundetako kargudunei eta zuzendaritzako kideei aplikatzen zaie (Arartekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua eta beste erakunde independente batzuk, Eusko Legebiltzarra), bai eta zuzendariaren pareko edo goragoko maila duten behin-behineko langileei ere.

Gainera, EAEko administrazio guztiek kargudun publikoen eta organoen jokaera-kode etikoak onartu dituzte jokabidea kontrolatzeko, eta barruko zein kanpoko agenteek osatutako etika publikoko batzordeak eratu dira. Batzorde horiei dagokie kontsultak jaso eta oharra eta iradokizunak argitaratzea, bai eta kode etikoan ezarritako aurreikuspenak egokitzeko proposamenak gauzatzeko prozedura ere.

Erronkak

Erakundeen integritaterako sistemetan erabiltzen diren mekanismo horien osagarri gisa, eta beste herrialde batzuetan garatu diren ekimenen ildoari jarraituz, komenigarria izan liteke azterlanen bat egitea, integritaterako eta kudeaketa hobetzeko sistema indartuko lukeen alerta-sistema bat antolatzearen onurak aztertze aldera; sistema horrek arrisku-eremuak identifikatuko lituzke eta bere ezarpenerako neurriak taxutuko lituzke.

6.- KULTURA DIGITALA

Indargunea – Posizionamendua

Urriaren 1eko 39/2015 Legea (administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena) eta urriaren 1eko 40/2015 Legea (sektore publikoaren araubide juridikoarena) indarrean jarri eta gero azkartu egin da EAEko administrazioen barne- zein kanpo-prozedurak digitalizatzeko prozesua. Administrazioak prozesu horretan aritu dira azken 15 urteetan. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko bere kanpo-prozeduren % 70 bihurtu ditu prozedura elektronikoko, eta gainerako administrazioak aurrera egiten ari dira euren zerbitzu eta prozeduren digitalizazioan.

Beste alde batetik, gure hiri eta herrietako bizitzatik datorren informazioaren bilketaren bitartez zerbitzuak sortzeko ahalbideari estu lotuta, EAEko hiru hiriburuak smart city edo hiri adimendunaren eredua garatzen ari dira, jasangarritasunean oinarritua, erakundeen, enpresen eta biztanleen oinarrizko beharrezanez egokiro erantzuteko gai dena, bai ekonomiaren aldetik, bai alderdi operatibo eta sozialetan zein ingurumenaren arloan. Kontzeptu hori komunitate digitalaren kontzeptuari lotzen zaio; azken horrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera trinkoa du oinarri; izan ere, teknologia horiek erabiltzen dira kalitate eta berotasun handiko zerbitzu publikoak emateko, segurtasunerako, produktibitateko, lehiakortasunerako, berrikuntzarako, ekintzaitzarako, parte hartzeko, prestakuntzarako eta gaikuntzarako. Hala, baditugu udal WIFI sarea bezalako ekimenak; sare horrek Internetarako sarbide libre, unibertsal eta doakoa ematen die herritarrei, administrazio elektronikoen esparru gero eta zabalagoen gaitasun telematikoak erabiltzea ahalbidetzen du, denbora errealeko datu-bilketarako balio du, udalak hobeto ezagut dezan hiria, eta udal-dispositibo konektatuen hedapenerako oinarri bihurtu daiteke.

Bestalde, azpimarragarria da, halaber, erakundeen webguneetarako irisgarritasun-ekimenen multzoa. Bereziki, Eusko Jaurlaritzaren gobernu irekiko atariak (Irekia) bideoen azpigitulu automatikoak, testu-entzuketak eta irakurtzen laguntzeko web-tresnak ditu; eta irakurketa errazaren bidez albisteak ikusteko eta parte hartzeko egokituta dago.

Erronkak

Orain arte, e-administrazioaren garapenean ahalegin handiagoa egin da administrazio-prozedura guztiak digitalizatzeko, kudeaketa elektronikoa ahalbidetu nahian, elkarrekintza administratibo horiek modu bakarrean herritarrekin integratzeko baino. Horregatik, Herritarren

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR

Karpeta garatzen ari da Eusko Jaurlaritza, edozein herritarrek bistaratu ahal izan ditzan EAEko edo Espainiako administrazioekin izan dituen prozedurak eta bideratzen ari direnak. Proiektu konplexua da. Izan ere, oraingoaren (Nire kudeaketak) egokitzapen teknologikoa egin behar da, multientitate bihurtu behar da, gainerako administrazioek helburu horrekin bat egiten badute (Estatuko Administrazioaren Herritarren Karpeta-erako elkarreragingarritasuna berehala ezarriko da), eta identifikazio-sistema komunaren (Giltza) bidezko sarrera duten gailu mugikorretarako moldatu behar da.

Beste alde batetik, intereseko helburua da aurrera egitea administrazioek partekatutako datuen azpiegiturarantz, kudeaketa publikoa hobetzen eta balio publiko partekatua sortzen lagunduko baitu, honako hauei dagokienez:

- Smart city egituraren eta sarearen diseinua informazio-iturri gisa: informazio igarlea, sentsoreen informazioa... azterketa igarlerako elementuak, azterketa mota hori bereziki erabilgarria baita auzoetan edo zona jakinetan proiektuak garatzeko
- Baliabideak gehitzeko eta kudeaketa publikoa hobetzeko aukera
- Open datatik big datarako iraganbidea: datuak bildu, deszifratu, monitorizatu... eta aldi berean teknologia berriak garatu, erabilera publiko-pribatuko aplikazio irekiak sortzeko (adibidez, aparkatzeko lekuak, trafiko urriagoko ibilbideak edo epidemiologia bistaratzea).

7.- KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUA

Indargunea – Posizionamendua

EAEko administrazio publikoek konpromisoa hartu dute kudeaketa publiko eraginkorraren bidean aurrera egiteko, eta ildo horretan hortxe dugu Euskalit, 2018an 25 urte beteko dituen erakundea, fundazio gisa eratua, Eusko Jaurlaritzaren babespean, EAEko erakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzeko, lehiakorrak izaten laguntzeko, eta nazioartean erreferente eta ospetsu izateko; edo Q-epea delakoa, kudeaketa aurreratuaren alde diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko hogeita hamar erakunde publikok osatutako sarea.

Haien laguntzaz, bikaintasun-eredua erakunde publikoen beharrezanean eta ezaugarriak egokitu zaie, eta kudeaketa aurreraturako kudeaketa-elementuak ezarri dira hainbat arlotan (estrategia, zerbitzuak, pertsonak, berrikuntza, gizartea eta emaitzak). Ekintzara bideratutako prestakuntza-proiektu baten bitartez gauzatzen da ezarpena. Prozesu horretan administrazio bakoitzeko sailak ereduarekin lerrokatzen dira, eta euren ezarpen-planak ezartzen dituzte, aholkularitza jasota, kudeaketa hobetzeko proiektuak egiteko, sailtan identifikatutako proiektuak, betiere. Ereduak [AURRERABIDE](#) du izena, eta Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian ezarrita dago.

Erronkak

Kudeaketa publiko aurreratuaren arloko jardunbide egokiak orokortzean datza erronka.

8.- HERRITARRENTZAKO ARRETA-ZERBITZUAK

Indargunea – Posizionamendua

EAEko administrazio publikoek herritarren arreta bateratuko zerbitzua ezarrita daukate edo ezartzeko prozesuan dihardute euren erakundeetako edo Jaurlaritzako jarduera eta zerbitzu guztietan, ezaugarri hauek dituen ereduari jarraituz:

- Pertsonak pertsonentzat egina
- Horizontala eta osoa, sailen eta administrazio-unitateen elkarrekintza guztiak bideratzen dituena
- Kanal anitzekoa: elektronikoa, telefono bidezkoa, aurrez aurrekoa
- Proaktiboa

Erronkak

Hona erronka: zerbitzu integratuaren ezarpen osoa lortu behar da, sarrerako ate hurbila eta zabala izan dadin herritar guztientzat, haien beharrianen eta eskarien arabera.

1. ERANSKINA. NOLAKOA DA ERAKUNDE BAKOITZAREN ANTOLAKETA-EREDUA GARDENTASUNAREN ARLOAN?

Bizkaiko Foru Aldundia	Eredu deszentralizatua. Profil teknikoko hiru pertsona, lanpostu berri banatan, Gardentasun unitatean. Unitateak berak ere lanean dihardu integritate, compliance, kontratazio, kalitate edota analitika gaietan. Pertsonen gain, baliabide ekonomikoak ere bideratzen ari dira. Esparru hori bi zuzendaritzaren artean banatuta dago: Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzaren eta Behatokiaren Zuzendaritzaren artean.
Bilboko Udala	Herritarrentzako Arreta eta Barrutien Sailaren eskumenekoa da gardentasuna. Baina Gobernu Batzordeak sail horretatik gidatutako zuzendaritza-talde bat sortzea onartu zuen, herritarrentzako arreta, kalitate, Alkatetza eta web arloetako pertsonen osatua. Arauen kontrola, jarraipena eta horrelako eginkizunak ditu. Ez du gardentasunerako langile propiorik, baina harreman-arlo bakoitzeko pertsona bat dago, ezereen beharra izanez gero. Ez dago inola ere izendatuta; unitatea da arduraduna esleitzen duena.
Gasteizko Udala	Herritarrentzako arreta eta gardentasuna Alkatetzako zerbitzua da. Bereziki ahalegintzen dira kultura-aldaketa eragiten, kode etikoa lantzen sail guztietako funtzionarioekin batera, katalogoa definitzen, hura ere irekia... Guztiz kezkatzen ditu antolaketa-kulturak, eragozpenak zenbaitetan barrukoak izaten direlako. Zentralizatu egiten dute (irizpide homogeneous emanez, besteak beste) zertarako-eta deszentralizatzeko. Badago berariazko unitate bat, baina ez dute langilerik kontratatu, eta idazkaritza teknikoekin funtzionatzen du (adibidez, kode etikoa EHUrekin)
Arabako Foru Aldundia	Badira Kabineteko Zuzendaritzari atxikitako bi lanpostu berri gardentasun-araua aplikatzea eginkizun bakarra dutenak. Eraikitzen ari diren lanpostuak dira, eta oraingoz atarian ari dira lanean. Halaber, sailetako bakoitzean, egiturari buruzko dekretuaren bidez, plangintzan, ebaluazioan, gardentasunean eta horrelakoetan solaskidetzaren eta trakzioaren ardura hartu behar duten pertsonak izendatu dira. Eredu mistoa dute: arduradun espezifikoak + unitateetako bakoitzeko pertsonak.
Gipuzkoako Foru Aldundia	Modernizazioaren eta sistemen arloan, Modernizazio Zerbitzuari dagokio gardentasun-eginkizuna. Hamaika pertsona dira modernizazioan eta bik dihardute gardentasunaren eta datu irekien alorrean. kontaktu bat dute departamentu bakoitzean, informazioa bidaltzen duena; gero euren argitaratu egiten dute. Organoei dagokienez, osoagoa da: badute zaintza-organo bat gardentasunerako, gehi etika-batzorde bat, zeinean zehazten baita Aldundiarentzako eta enpresentzako nahitaezkotasun-printzipioa.

Eusko Jaurlaritza	Badituzte Gobernu Irekiaren Zuzendaritza eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza. Gobernu Irekiaren Zuzendaritza arduratzen da parte hartzeko plataformez, eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren ardurapean daude webeko presentzia, Administrazioaren sinplifikazioa, herritarrentzako arreta eta berrikuntza. Berrikuntzan, bada berrikuntza publikoko ardatz bat, eta hain zuzen ere berrikuntza publikoan lantzen da gardentasuna. Bi lanpostu berri sortu dira. Departamentuartereko batzorde batek, halaber, gidalerro orokorrak, homogeneizazioa eta abarrekoak finkatzen ditu gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen alorrean. Ez da departamentuetako bakoitzean unitaterik sortu, baina badago laguntza teknikoa departamentu bakoitzean. Betetzeari buruzko txostena aurkezten da urtero, eta erakunde publiko guztiek eman behar dute informazioa, departamentuen bidez. Bide zentralizatu bat partekatzen dute, eta gero hedatu eta deribatu egiten da. Etikaren atalean, etika publikoko batzorde bat arduratzen da kontsultei erantzuteaz eta etika-kodearen ez-betetzei buruzko txostenak egiteaz.
----------------------	---

OGP-RI AURKEZTUTAKO HAUTAGAITZAREN 1. ERANSKINA: EUSKADIKO GOBERNU IREKIA. Hautagaitzako kide diren erakundeen ekimen nabarmenak

ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	INTEGRITATEA
EUSKO JAURLARITZA	<p>Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria</p> <p>Herritarrek parte hartzeko jardunbide egokiak</p> <p>Etxebizitzaren Euskal Behatokia – parte hartzeko plataforma</p> <p>Elkarlan sariak – gizarte zibilak sustatzen dituen eta balio publikoa sortzen duten proiektuen aintzatespena</p>	<p>Gardentasunaren Ataria - Gardena</p> <p>Irekia – Gobernu Irekiaren Plataforma</p>	<p>Open Data Euskadi</p>	<p>Gobernu-programaren jarraipena</p> <p>Aurrekontu publikoen bistaratzea</p> <p>Administrazio-egintza guztien bistaratzea (Legegunea - justiziaren arloan esanguratsuak diren agirien espazioa)</p> <p>Gazteen Euskal Behatokia; immigrazioarena; jazarpen eta diskriminazioarena; segurtasunarena; kulturarena; ekonomia sozialarena; EAEko soziometroak</p>	<p>Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 plana</p> <p>Kudeaketa publiko aurreratua - Aurrerabide</p>	<p>1/2014 Legea, ekainaren 26koa, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituena</p> <p>Etika Publikoaren Euskal Batzordea</p>
ARABAKO FORU ALDUNDIA	<p>Gobernu Irekiaren Ataria Araba Irekia - Parte-hartzea 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri</p> <p>Agora - Herritarrek parte hartzeko proiektua</p> <p>Laja Eskola - Arabako Emakumeon Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola</p>	<p>Araba Irekia – Gobernu irekiaren ataria 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri</p> <p>Gardentasunaren Foru Kontseilua</p> <p>Informazio publikoa eskuratzeko sistema 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri</p>	<p>Open Data Araba <i>Eraikuntza-fasean</i> – 2018ko uztailetik aurrera erabilgarri</p>	<p>2015-2017 agintaldiko plan estrategikoaren jarraipena</p> <p>Arabako Foru Aldundiko ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri</p>	<p>Arabako Foru Aldundiaren 2015-2019 agintaldirako plan estrategikoa</p> <p>1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena</p>	<p>Kargu publikodunen gobernu onerako eta etikarako kodea eta Etika Publikoaren Batzordea</p> <p>Arabako Lurralde Historikoko Foru Kargu Publikoen jarduna arautzen duen foru-arauaren <i>Prestatze-fasean; herritarren partaidetza-fasea hasita (2018-02-22).</i></p>

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR



		Informazio publikoaren katalogoa 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri Gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Foru Arauari buruzko gida erraza 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri				
--	--	---	--	--	--	--

ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	INTEGRITATEA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	<p>Parte hartzeko ataria eta parte-hartzearen "Mapa"</p> <p>Elkarrizketa Zibilerako Mahaia</p> <p>Gazte Begirada - Gazteekin eskualdearen etorkizuna diseinatzea, Danish Design Center-ekin lankidetzan</p>	<p>Gardentasunaren Ataria</p> <p>Biscaytik – Udala Zabaltzen</p> <p>Gardentasunaren gaineko Erreklamazioen Batzordea</p> <p>Gardentasunaren Foru Arauaren irakurketa erraza</p>	<p>Open Data Bizkaian</p> <p>GeoBizkaia</p> <p>Elkarreragingarritasuna</p>	<p>BG2030 agiri estrategikoaren jarraipena eta barne-ebaluazioa</p> <p>Jarraipen-txostenen argitalpena webgunean</p> <p>Plan estrategikoaren kontuak emateko aurrez aurreko prozesua (lehen zikloa eta bigarren zikloa)</p>	<p>BG2030ren Gobernu Estrategia</p> <p>Gardentasunaren Foru Araua</p> <p>Gardentasunaren Foru Plana 2017-19 eta Memoriak</p> <p>Gobernu/lurralde irekiaren estrategia</p>	<p>Ondasun-aitorpenak, bateragarritasunak eta dekalogo etikoa</p>
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<p>Herritarren Partaidetzarako Ataria</p> <p>Herritarren Partaidetzarako Erakundearteko Espazioa. GAO - egoitza</p> <p>Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua</p> <p>Gipuzkoa Sarean: maila anitzeko eskualde-garapenaren</p>	<p>Gardentasunaren Atari Instituzionala</p>	<p>Gipuzkoa Irekia – Gipuzkoako Gardentasunaren eta Datu Irekien Ataria</p>	<p>Aurrekontuen betetze-mailaren jarraipena</p> <p>Kudeaketa Plan Estrategikoaren Jarraipena</p> <p>Aurreko ekitaldietako kontu-ematea</p>	<p>Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019</p> <p>Etorkizuna Eraikiz</p> <p>Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua</p> <p>Gardentasunari eta Informazio Publikoa Eskuratzeari buruzko Foru Araua</p>	<p>Zuzentasun Instituzionalerako Sistema</p> <p>Erakundearen Etika Batzordea</p>

EUSKADIRENTZAKO DIAGNOSTIKORAKO ETA ERRONKETARAKO OINARRIZKO AGIRIA GOBERNU IREKIAREN AR



	laborategia Hirikilabs – Kultura digitalaren eta teknologiaren laborategia				Parte hartzeko programa	
BILBOKO UDALA	Parte-hartze bidezko aurrekontuak Herritarrek parte hartzea planak egiteko orduan Udal-kontseiluak eta parte hartzeko beste organo batzuk Ume eta Nerabeen Kontseilua Auzokide Plana – gure auzoetako hobekuntza-proiektuen planifikazioa, garapena eta exekuzioa adosteko funtsezko tresna	Gardentasunaren Ataria Irakurketa Errazeko Plana	Bilbao Open Data	Zerbitzu-karta Udalaren datu ekonomiko-finantzarioak Aurrekontuen bistaratze grafikoa Bilboko datu ekonomiko eta demografikoen behatokia	Gobernu Plana 2015-2019 Parte-hartze Plan Estrategikoa 2015-2019 Bilboko Barrutietako Kontseiluen Araudia Herritarren partaidetzarako araudiaren berrikuspena	Zuzentasun Instituzionalerako Sistema
ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	INTEGRITATEA
DONOSTIAKO UDALA	Donostiakin – Herritarren partaidetzarako lineako plataforma Elkarteen Ataria	Gardentasunaren Ataria	Datu Irekien Ataria - Donostia Data	Hitzak, Ekintzak – Gobernu Programaren betetzearen ebaluazioa Aurrekontu publikoen argitalpena	HAZI – Herritarren Arreta Integralerako Proiektua Lagunkoia – Pertsona nagusiekiko lagunkoia den hiria KLIMA – DSS2050 estrategia – klima-aldaketarako toki-estrategia	Gobernu Onaren Kodea
GASTEIZKO UDALA	V-G Herritarren Parte Hartzerako Plana	Gardentasun Plan Operatiboa			"Gasteiz Hobetuz" proiektua Herritar-Kontsulten Araudia	

--	--	--	--	--	--	--